

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

2019ko uztailaren 30eko osoko bilkuran hartutako Ebazpenaren laburpena. Auzo-taxia erabiltzeko emango diren dirulaguntzen deialdiaren oinarri bereziak. BDNS (Identif.): 469808.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan xedatutakoarekin bat, dirulaguntza horien deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehenengoa. — Onuradunak

Xedean aipatzen diren Bermeoko landa-inguruneko auzoetako bateko biztanleak.

Bigarrena. — Xedea

- Araudi honen xedea da Agirre, Almika, Arane, Arronategi, Artika, Demiku, Gibelortzaga (San Pelaio), Kurtzio (Sarren), Mañu, San Andrés eta San Miguel auzoetako biztanleek, egoera jakin batzuetan, Bermeo udalerriraino taxiz egiten dituzten joan-etorrien kostua gutxitzeko Bermeoko Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzea.
- Era horretako joan-etorrien zerbitzuaren izena Auzo-Taxia izango da.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Bermeoko Udalaren web orrian, Gardentasunaren atalean (<http://www.bermeo.eus/1304.html>).

Laugarrena. — Diru-kopurua

- 3.000 euro.

Bosgarrena. — Aurkezteko epea

Bizkaiako Aldizkari Ofiziala argitaratzen denetik 2019ko abenduaren 31ra arte.

Bermeon, 2019ko abuztuaren 7an. — Bitarteko Kontu-Hartzailea, Edurne Urrutia Uriarte